

## Donostian, 1998ko ekainaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
I. Sarasola  
eta A. Urrutia  
euskaltzainak  
eta  
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea,  
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea (3.  
gaian),  
L. Oñederra eta P. Etxeberria,  
Ahoskera batzordeko kideak (1. gaian).

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1998ko ekainaren 26an, goizeko hamarrak eta laurdenetan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak hileroko batzarrari. Ondoko zutabeetan jaso dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute F. Krutwigek eta P. Salaburuk. Honek M. Azkarateri eman dio bere boza.

### *Aurreko bilera agiriak onartzea.*

Euskaltzainetarik inork ez du oharrrik ekarri. Horrenbestez, ontzat eman dira bere horretan aurreko hileko bi bileren aktak.

### *Euskaltzainburuaren hitzak.*

Ondoren, euskaltzainburuak J. L. Davant euskaltzainaren amaren heriotzaren berri eman die euskaltzainei eta doluminak eman denen izenean.

P. Ondarrari, berriz, zorionak eta eskerrak eman dizkio atera berri duen Polikarpo Iraizozkoaren *Hitz neurtuzko lanak* liburugatik.

## *1. Hizkuntza arauak.*

### *1.1. "Ahoskera batuaz" delako txostena onartzea.*

Euskaltzainburuak Ahoskera lantaldeko Lourdes Oñederrari eman dio hitza. Honek esan du aurreko hilean aurkeztutako txostenari egin zaizkion oharrak aztertzeko Euskara Batuko batzordearekin egin dutela bilera. Aurkeztutako testuari bi euskaltzainek egin dizkiote oharrak: X. Kintanak eta H. Knörrek. Ahal izan den neurrian oharrok jasotzen saiatu direla adierazi du. X. Kintanak esan du ongi finkatu beharko litzatekeela delako eredu zaindua noiz erabili behar den. "Pertsona ezezagunekin mintzatzeko" dela gehitu behar omen litzaioke testuari arauaren eremua finkatzeko. Ildo honetatik, euskaldun berriak aintzat hartu behar direla uste du.

Ibon Sarasolak, ostera, arriskugarria dela dio hemen euskaldun berriei erreferentzia egitea. Testuan aski zehaztua dagoela zein den ahoskera zaindu horren eremua: “arauak (...) hizkera zaindua, maila jasokoa, erabili behar denerako direla, irrati-telebistetako berri-emanaldietarako, jendeurreko hitzaldietarako, eskolako azalpenetarako, eta horien antzeko egoerentarako”.

Batzordearen proposamena bozkatu da eta aldeko 13 boto izan dituenez, onartua gelditu da txostenaren lehen paragrafoa.

Ondoren, EBAZ (Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua) delakoa zer datekeen dioen paragrafoaz izan da eztabaida. Ahoskera biziak gainera irakatsi beharreko eredu izango litzateke. Kintana jauna ez dago ados, kontraesana ikusten du eta azken hiru lerroak ezabatzeko eskatzen du. Sarasolak gogorarazi dio testuak ahoskera biziak “gainera” dioela eta ez, “ordez”. Hor dagoela kontua. Hortaz, EBAZ-ek ez luke ezer ordezkatu.

Azkenean batzordearen proposamena onartu da.

Ondoren, arauetara beretara eraman da eztabaida. Bokaletan [ü] ahoskeraren auzia izan da eztabaidagai. Araua euskara batuari dagokiola gogorarazi da. Eztabaidagarri den hots hori euskalki batekoa da. L. Oñederrak esan du arauaren asmoa hots hori erabiltzen dutenei ez kentzea dela. Hori dela eta, testua apur bat aldatu da: [ü] ahoskera zilegitzat emateko, I. ataleko lehen bi lerroen ondoren, “hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan” erantsi da.

Aho batez onartu da proposamen hau.

Bokal bilkurei buruzko testua dagoen-dagoenean onartu da, hamalau botorekin.

Kontsonanteei dagokienez, VII. atalean <(i)ll> eta <(i)ñ> ahoskera zainduan ere egoki direla erantsi da eta, hain zuzen, ahoskera zaindua <lla> dela eta ez <ya>.

Proposamen honek hamabi boto izan ditu bere alde eta, horrenbestez, onartu da.

Kontsonante bilkurek ere eztabaida ekarri dute. X-XI paragrafoen idazkera leundu egin da, eta onartu da ez-en ondoren <d> ahoskabe gisa ebaki beharra. Eta d<b<g mailakatzea gertatzen denez, maila zainduan *b* eta *g* ahoskabetzea ere onartzen da. Bestela ere, <z>-ren ondoren goiko hots horien ahoskabetzea hobesten da.

Azkenik, onartutako aldaketekin, testu osoa bozkatu da. Hamazazpi euskaltzainek eman dute aldeko botoa. Beraz, onartua gelditu da.

Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie ahoskera lantaldeko kideei, egin duten lanagatik.

## 1.2. Hiztegi batua.

### 1.2.1. *Loeri* eta *lorrin* hitzei buruzko erabakia.

Aurreko batzarrean “zintzilik” gelditu zen *loeria/loeri* auzia, *-eri/-eria* amaierari buruzko erabaki orokorrako baten zain. Batzordeak informazio gehiago ekarri du eta badirudi *-eri* bukaera dela nagusi. Salbuespenen bat izatekotan, Iparraldeko hitz solteren bat izango da. Arau orokorra, hortaz, *-eri* izango litzateke. Bozkatu da eta hamalau boto agertu dira batzordearen proposamenaren alde. Beraz, *loeri* forman emango da sarrera hori.

*Lorrin* hitzari buruzko informazioa ere ekartzekotan zen batzordea. Ez omen du eskuratu baina arratsaldean izango omen da.

### 1.2.2. *Hiztegi Batuko lubaki - makina zerrenda onartzea.*

Ondoen, A. Urrutiak zerrenda honi egindako oharrak hartu dira hizketa gai.

*Luditu* hitza bigarren itzulirako uztea proposatzen du batzordeak eta hala onartzen da.

*Luki*-ren sarreran *luki-buztan* onartu da azpisarrera gisa, 'azeri belarra, azeri buz-tana' dela esanez.

*Lunbago* sartzea onartu da.

*Lupertu*, bigarren itzulirako utzi da.

*Lursail*, *lurzati*, *lurzoru* sartzea eskatzen du ohargileak. Batzordea ados da, baina datuak aztertu ondoren erantsiko lirateke hitz horiek, geroago.

*Luzara* sarreran adibideak sartzea eskatzen da. Onartu da. Honela geldituko da sarrera hori: **luzara**, adlg., luzarora, *lhintz handiak luzara kalte egiten dio ardiari*.

*Madari* sarreran *madari-makatz* sartzea ez da onartu, bai *madari*-k, bai *makatz*-ek bakoitzak bere sarrera baitu, eta hori aski dela irizten dio batzordeak.

*Mahai* hitzaren azpian *mahai(-)futbol* sartzea onartu da. *Mahai(-)tenis*, ostera, bigarren itzulirako utzi da.

*Mahometano/mahometar* hitzei ere leku egitea eskatzen du Urrutia jaunak. Eztabaida luzearen ondoren, kontu hau Onomastika batzordera eramatea onartu da. Gero hartuko litzateke dagokion erabakia.

*Mailasio* hitza sartzea onartu da.

Azkenik, eztabaidatzeko markatuak ziren hitzen azterketari ekin dio batzarrak.

*Lubaki/luebaki* auzia dela eta, lehenbizikoa omen litzateke hedatuena. Hori diote datuek. Botoetara jo da eta hamaika euskaltzainek eman dute *lubaki*-ren aldeko botoa. Forma hau onartu da, horrenbestez.

*Luizi/lubizi* eztabaidarako datuak arratsaldeko saiorako ekartzea agindu du Sarasola jaunak. Erabakia zintzilik geratu da, hortaz.

*Lurrun/lurrin* hautua aurkeztu zaie ondoren euskaltzainei. Oso kontu nahasia dela agerian gelditu da. Hala ere, ongi ikusi da bi formen arteko banaketa egitea. Eztabaidaren ondoren, honela gelditu da kontua: *lurruna* 'gasa' izango da. Horrenbestez, *lurrun* hitzak, azpisarrera gisa, *lurrun(-)makina* izango du. *Lurrin*-en sarreran, berriz, honako hau esango da: 1. usain gozoa; 2. e. *lurrun*.

*Luto/lutu*-ren arteko hautua egiteko behar diren datuak arratsaldean eskuratzekotan geratu da.

*Magia/majia* bikotearen inguruan eztabaida luzea izan da ondoren. Ahoskerari eman nagusitasuna ala grafiari. Azkenean botoetara jo da. Honako hau izan da emaitza:

*magia* formaren alde, 10 boto. *Majia* hitzaren alde, berriz, 4. Horrenbestez, *magia* forma onartu da.

Mahai gainean dauden gaiak zein diren gogoan harturik, euskaltzainburuak proposatzen du goizeko bilkura behar den guztia luzatzea eta arratsaldean ez biltzea. Proposamen horren arabera, arratsaldean ekarri behar ziren argibideak hurrengo bilerarako izango dira. Erabakiaren zai gelditzen diren hitzak honako hauek dira: *lorrin*, *luizi* eta *luto*. Hauei buruzko erabakia, hortaz, hurrengo bileran hartuko da.

### 1.2.3. *Makineria - matrikulatu zerrenda aurkeztea.*

Zerrenda hau hurrengo bileran eztabaidatuko da. Oharrak egiteko epea, ohikoa. Dena dela, orrialde batzuk falta ditu emandako zerrendak, *makineria* hitzean hasi beharrean *maldizio* hitzean hasten baita. Arazo hau zuzentzekotan geratu da.

### 1.3. *Onomastika: Albacete izenaren idazkera.*

*Albacete* exonimoari buruzko galdera bat egin zaio Onomastika batzordeari. Bere garaian onartutako zerrendan ez da agertzen izen hau. Onomastika batzordearen orain arteko irizpideen arabera, *Albacete* onartzea proposatzen du Euskara Batuko batzordeak. Hala onartu da eta dagokion zerrendari itsatsiko zaio.

## 2. *Bosgarren Gramatika Jardunaldiak.*

Areatzan, uztailaren 23 eta 24an egingo diren jardunaldien berri eman du J. L. Lizundia jaunak. Ondoren, zenbait xehetasun eman ditu P. Goenagak, hilaren 24ko egutegiari buruz. Euskaltzainen hileroko batzarra ostegunean izango da, goiz eta arratsalde. Ostiralean, berriz, gramatika jardunaldiak.

### 3. *1999ko aurrekontuak.*

Datorren urteko aurrekontuen aurkezpena egin du J. J. Zearreta ekonomi eragileak. Irteak bakarrik jaso dira aurkeztutako aurrekontuan. Sarrerak ezin dira ezarri Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin arte.

Datorren hileko bilera arteko epea du edonork aurrekontu zirriborro honi aldaketa proposamenak egiteko.

### 4. *Eskuartekoak: Euskaltzainburuaren gutunak Frantziako agintariei.*

Frantziako Konstituzioa aldatzeko Kongresuak Versaillesen egingo duen bilkura dela eta, euskaltzainburuak bidali dituen hiru gutunen berri eman da: bata, Nicole Pery andre ministroari, bigarrena, F. Bayrou jaunari eta hirugarrena, J. Grenet jaunari. Frantziar mintzatzen diren eremu urriko hizkuntzei zor zaien aitortpena bideratzeko lau proposamen eskaintzen zaizkie aipatu politikari horiei, ahulenetik bortitzenera mailakatuak, ongi baderitzate Frantziako Konstituzioan sarrarazi ditzaten.

## 5. *Azken ordukoak.*

### 5.1. *P. Salaburu eta P. Goenagarekiko elkartasuna.*

Azkenaldi honetan Salaburu eta Goenaga jaun euskaltzainek unibertsitatean jasan dituzten eraso eta irainak direla eta, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak egindako elkar-

tasun adierazpenaren berri izan duela aipatu du J. San Martin jaunak. Euskaltzain osoek adierazpen horrekin bat egin dezatela proposatzen du. P. Goenagak xehetasun gehiago eman ditu eta Euskaltzaindiak aho batez bere egin du zuzendaritzaren idatzia.

### 5.2. *Jan Braun jaunaren bisita.*

Azkenik, Jan Braun hizkuntzalariaren bisita izan dute euskaltzainek. Euskaltzainburuak agurtu du eta honek ere agur hitz labur batzuk egin dizkie euskaltzainei.

Ordu bietan amaitutzat eman da bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga